

Bigarren eskuko makinak eskuratzeko irizpideak

EROSLEAREN BETEBEHARRAK:

Makina 1995 baino lehen merkaturatu edo zerbitzuan jarri bada Europar Batasunean (EB), saltzaileari eskudun teknikari batek sinatutako txosten bat eskatuko zaio, makinak 1215/97 EDren I. eranskinean eskatutako segurtasun eta osasuneko gutxieneko eskakizunak betetzen dituela ziurta dezan.

Makina 1995 eta gero merkaturatu edo zerbitzuan jarri badute EBn, dagokion makinei buruzko zuzentaraua bete beharko du. Dena den, hauek ere edukiko ditu: EE etiketa, adostasun-adierazpena eta argibide-orria (gaztelaniaz gutxienez).

Fabrikatzaileak ezarritako segurtasuneko jatorrizko baldintzei eusten zaiela egiaztatzen duen ziurtagiria eskatuko da.

Makina EBtik kanpoko herrialde batean erosiz gero, hauek eduki beharko ditu: EE etiketa, adostasun-adierazpena eta argibide-orria (gutxienez gaztelaniaz) 2006/42/EE Zuzentarauaren edo berau egokitzen duen 1644/2008 EDren arabera. 2009ko abenduaren 29a baino lehen erosi bada, 89/392/EEE edo 1435/1992 ED bete beharko ditu.

Makinaren eginkizunetan funtsezko aldaketaren bat eginez gero, jabea fabrikatzaile bihurtzen da eta beste EE etiketa bat ezarri beharko dio, makina 2006/42/EE Zuzentarauaren edo berau egokitzen duen 1644/2008 EDren eskakizunetara egokituta.

Gogoan izan: enpresak arriskuen ebaluazio bat egin beharko du lan-ekipo guztiaren gainean, baita makinaren gainean ere, merkaturatzeko eguna edozein dela ere, hartarako 1215/1997 EDn oinarriturik, eta hauxe ere beteta:

- I. eranskinean eskatutako segurtasun-baldintzak.
- II. eranskinean eskakizunak, ekipoa egoki hautzeari, erabiltzeari eta mantentzeari dagokienez.

ARGIBIDE-ORRIA:

Argibide-orriak eduki hau izan beharko du:

- Fabrikatzailearen eta baimendutako ordezkariaren sozietate-izena eta helbide osoa.
- Makinaren izena.
- Adostasuneko EE adierazpena edo adierazpen horren edukia azaltzen duen agiri bat.
- Makinaren deskribapen orokorra.
- Makina erabiltzeko, mantentzeko, konpontzeko eta zuzen funtzionatzeko duela egiaztatzeko beharrezko planoak, diagramak, deskribapenak eta azalpenak.
- Operadoreek bete ditzaketen lanpostuen deskribapena.
- Makinaren aurreikusitako erabileraren deskribapena.
- Ohartarazpenak, makina bat nola ez den erabili behar azalduta.
- Muntatzeko, instalatzeko eta lotzeko jarraibideak –finkatzeko bitartekoak, planoak eta diagramak barne– eta makina muntatu behar den txasisaren edo instalazioaren izena.
- Instalazioari eta muntatzeari buruzko argibideak, zarata eta bibrazioak murrizteko.
- Makinak zerbitzuan jartzeko eta erabiltzeko argibideak eta, beharrezkoak badira, operadoreak trebatzeko argibideak.
- Dauden hondar-arriskuei buruzko informazioa.
- Erabiltzaileak hartu beharreko prebentzio-neurriei buruzko argibideak, baita, dagokionean, eman beharreko banako ekipoak ere.
- Makinara egokitu daitezkeen erreminten oinarritako ezaugarriak.
- Erabili, garraiatu, muntatu, desmuntatu, zerbitzutik kanpo utzi, probak egin edo matxura arriskugarria eduki bitartean makinek egonkortasun-eskakizuna betetzen duten baldintzak.
- Garraiatzeko, mantentzeko eta biltegitzeko eragiketarako segurtasun osoz egin ahal izateko argibideak.
- Istripua edo matxura gertatuz gero jarraitu beharreko jarduteko modua.
- Erabiltzaileak egin beharreko doitzeko eta mantentzeko eragiketen deskribapena, bai eta bete beharreko prebentzioko mantentze-neurriak ere.
- Doikuntza eta mantentzea segurtasun osoz egiteko diseinaturiko argibideak, bai eta era horretako eragiketetan hartu beharreko prebentzio-neurriak ere.
- Erabili beharreko ordezkari piezen ezaugarriak, haiek operadoreen osasunean eta segurtasunean eragiten dutenean.
- Makinaren zaratari buruzko informazioa:
 - Lanpostuetako A igorpenaren soinu-presio maila haztatua, 70 dB(A)-tik gorakoa denean; baldin eta maila hori 70 dB(A)-koa edo txikiagoa bada, horren berri eman beharko da.
 - Lanpostuetako C aldiuneko soinu-presioaren gehieneko balioa, 63 Pa-tik gorakoa denean (130 dB 20 µPa-rekin lotuta).
 - Makinak igorritako A soinu-potentzia maila, baldin eta A igorpenaren soinu-presio maila haztatua, lanpostuetan, 80 dB(A)-tik gorakoa bada.
- Baldin eta makinak pertsonari, bereziki osasun-gailu aktiboak edo inaktiboak ezarrita dituzten pertsonari, kalteak eragin diezazkieketen erradiazio ez-ionizatzaileak igor balitzake, operadorearentzat eta haren eraginpean dauden pertsonentzat igorritako erradiazioari buruzko informazioa.

ADOSTASUN-ADIERAZPENA:

Agiri horren bidez makina dagokion zuzentarauaren eskakizunekin eta hura fabrikatzeko erabilitako beste arau batzuekin bat datorrela adierazten du fabrikatzaileak. Honako osagai hauek izango ditu:

- Fabrikatzailearen eta, hala badagokio, baimendutako ordezkariaren helbidea eta sozietate-izena.
- Espediente tekniko biltzeko ahalmena duen pertsonaren izena eta helbidea; erkidegokoa izan beharko du.
- Makinaren deskribapena eta identifikazioa, hauek ere barne hartuta: izen generikoa, eginkizuna, modeloa, tipoa, serie-zenbakia eta izen komertziala.
- Lerrokada batean hauxe adieraziko da espresuki: makinak 2006/42/EE Zuzentarauaren xedapen aplikagarri guztiak edo erkidegoko beste zuzentaru batzuenak eta/edo beharrezko xedapenak betetzen dituela.
- Hala badagokio, tipoaren EE azterketa egin zuen jakinarazitako organismoaren izena, helbidea eta identifikazio-zenbakia, eta tipoaren EE azterketaren ziurtagiri-zenbakia.
- Hala badagokio, kalitatea segurtatzeko sistema onartu zuen jakinarazitako organismoaren izena, helbidea eta identifikazio-zenbakia.
- Hala badagokio, erabili diren arau harmonizatuen erreferentzia.
- Hala badagokio, erabili diren beste arau eta zehaztapen teknikoaren erreferentzia.
- Adierazpenaren tokia eta eguna.
- Fabrikatzailearen edo baimendutako ordezkariaren izenean adierazpen hori idazteko ahalmena duen pertsonaren nortasuna eta forma.

MAKINA BATEN FUNTSEZKO ALDAKETA:

EE etiketa duen makina bat aldatu aurretik komeni da fabrikatzaileari kontsulta egitea, aldaketa horrek ziurtagiria galtzea ekarri dezakeen adieraz dezan. Nolanahi ere, funtsezko aldaketatzat hauxe har daiteke:

- Makinak eginkizun edo aplikazio berriak egitea eragiten duen aldaketa oro.
- Makinaren jatorrizko eginkizunaren aldaketa.
- Makinan arrisku berria agertzea eragiten duen aldaketa oro.

MAKINEN EROSKETAREN ERANTZUKIZUNAK:ESKUHARTZAILEAK

◆ FABRIKATZAILEA/INPORTATZAILEA/HORNITZAILEA (Saltzaile):

PRODUKTU SEGURUAK MERKATURATZEA:

- 89/392/EE Zuzentaru + aldak. 1435/1992 ED + 56/1995 ED
- 2006/42/EE Zuzentaru, 1644/2008 ED
- 31/1995 Legearen 41. Artikulua. **Fabrikatzaileen/Inportatzaileen/Hornitzaileen betebeharrak**

◆ ENPRESARIA (Eroslea):

LAN BALDINTZA SEGURUAK BERMATZEA:

- 31/95 Legea, 1215/97 ED

SALTZAILEAREN BETEBEHARRAK:


Makina 1995 baino lehen merkaturatu edo zerbitzuan jarri bada Europar Batasunean (EB), saltzaileari eskudun teknikari batek sinatutako txosten bat erantsiko zaio, makinak 1215/97 EDren I. eranskinean eskatutako segurtasun eta osasuneko gutxieneko eskakizunak betetzen dituela ziurta dezan.

Makina 1995 eta gero merkaturatu edo zerbitzuan jarri badute EBn, dagokion makinei buruzko zuzentaraua bete beharko du. Nolanahi ere, hauek ere edukiko ditu: EE etiketa, adostasun-adierazpena eta argibide-orria (gaztelaniaz gutxienez).

Fabrikatzaileak ezarritako segurtasuneko jatorrizko baldintzei eusten zaiela egiaztatzen duen ziurtagiria egingo da.

EBtik kanpoko herrialde batetik datorren makina bat salduz gero, hauek eduki beharko ditu: EE etiketa, adostasun-adierazpena eta argibide-orria (gutxienez gaztelaniaz) 2006/42/EE Zuzentaruari edo berau egokitzen duen 1644/2008 EDri jarraiki. EBn 2009ko abenduaren 29 baino lehen merkaturatu bada lehen aldiz, 89/392/EEE Zuzentaru edo 1435/1992 ED bete beharko du.

Makinaren eginkizunetan funtsezko aldaketaren bat egin bada, jabea fabrikatzaile bihurtzen da eta beste EE etiketa bat ezarri beharko dio, makina 2006/42/EE Zuzentarauaren edo berau egokitzen duen 1644/2008 EDren eskakizunetara egokituta. Horregatik, fabrikatzaileak ezarritako segurtasuneko jatorrizko baldintzei eusten zaiela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztea gomendatzen da.



Criterios para la adquisición de máquinas de segunda mano

OBLIGACIONES PARTE COMPRADORA:

Si la máquina ha sido comercializada o puesta en servicio en la Unión Europea (UE) con anterioridad a 1995, solicitar al vendedor un informe firmado por un técnico competente que asegure que la máquina cumple los requisitos mínimos de seguridad y salud requeridos en el anexo I del R. D. 1215/97.

Si la máquina ha sido comercializada o puesta en servicio en la UE con posterioridad a 1995 deberá cumplir con la directiva máquinas que le corresponda. En cualquier caso dispondrá de marcado CE, declaración de conformidad y manual de instrucciones (al menos en castellano).

Solicitar certificado que justifique que se mantienen las condiciones originales de seguridad establecidas por el fabricante.

Si se compra una máquina en un país que no es de la UE, deberá disponer de marcado CE, declaración de conformidad y manual de instrucciones (al menos en castellano) conforme a la Directiva 2006/42/CE o al RD 1644/2008 que traspone dicha Directiva. Si se compró anteriormente al 29.12.2009 será conforme a la Directiva 89/392/CEE o RD 1435/1992.

Caso de realizar una modificación sustancial en las funciones de la máquina, su propietario se convierte en fabricante y habrá de realizar un nuevo marcado CE, adaptando la máquina a los requisitos de la Directiva 2006/42/CE o del RD 1644/2008 que traspone dicha Directiva.

Se recuerda que para todo equipo de trabajo, incluidas las máquinas, independientemente de su fecha de comercialización, la empresa deberá realizar una evaluación de riesgos de la máquina en base al RD1215/1997, dándose cumplimiento a:

- Las condiciones de seguridad exigidas en el Anexo I.
- Las exigencias del Anexo II, en cuanto a selección, utilización y mantenimiento adecuado del equipo.

MANUAL DE INSTRUCCIONES:

El contenido del manual de instrucciones deberá ser el siguiente:

- La razón social y dirección completa del fabricante y de su representante autorizado.
- La designación de la máquina.
- La declaración CE de conformidad o un documento que exponga el contenido de dicha declaración.
- Una descripción general de la máquina.
- Los planos, diagramas, descripciones y explicaciones necesarias para el uso, el mantenimiento y la reparación de la máquina, así como para comprobar su correcto funcionamiento.
- Una descripción de los puestos de trabajo que puedan ocupar los operadores.
- Una descripción del uso previsto de la máquina.
- Advertencias relativas a los modos en que no se debe utilizar una máquina.
- Las instrucciones de montaje, instalación y conexión, incluidos los planos, diagramas y medios de fijación y la designación del chasis o de la instalación en la que debe montarse la máquina.
- Las instrucciones relativas a la instalación y al montaje, dirigidas a reducir el ruido y las vibraciones.
- Las instrucciones relativas a la puesta en servicio y la utilización de la máquina y, en caso necesario, las instrucciones relativas a la formación de los operadores.
- Información sobre los riesgos residuales que existan.
- Instrucciones acerca de las medidas preventivas que debe adoptar el usuario, incluyendo, cuando proceda, los equipos de protección individual a proporcionar.
- Las características básicas de las herramientas que puedan acoplarse a la máquina.
- Las condiciones en las que las máquinas responden al requisito de estabilidad durante su utilización, transporte, montaje, desmontaje, situación de fuera de servicio, ensayo o situación de avería previsible.
- Instrucciones para que las operaciones de transporte, manutención y almacenamiento puedan realizarse con total seguridad.
- El modo operativo que se ha de seguir en caso de accidente o de avería.
- La descripción de las operaciones de reglaje y de mantenimiento que deban ser realizadas por el usuario, así como las medidas de mantenimiento preventivo que se han de cumplir.
- Instrucciones diseñadas para permitir que el reglaje y el mantenimiento se realicen con total seguridad, incluidas las medidas preventivas que deben adoptarse durante este tipo de operaciones.
- Las características de las piezas de recambio que deben utilizarse, cuando estas afecten a la salud y seguridad de los operadores.
- Información respecto al ruido de la máquina:
 - El nivel de presión acústica de emisión ponderado A en los puestos de trabajo, cuando supere 70 dB(A); si este nivel fuera inferior o igual a 70 dB(A), deberá mencionarse este hecho.
 - El valor máximo de la presión acústica instantánea ponderado C en los puestos de trabajo, cuando supere 63 Pa (130 dB con relación a 20 µPa).
 - El nivel de potencia acústica ponderado A emitido por la máquina, si el nivel de presión acústica de emisión ponderado A supera, en los puestos de trabajo, 80 dB (A).
- Cuando sea probable que la máquina emita radiaciones no ionizantes que puedan causar daños a las personas, en particular a las personas portadoras de dispositivos médicos implantables activos o inactivos, información sobre la radiación emitida para el operador y las personas expuestas.

DECLARACIÓN DE CONFORMIDAD

Documento por el cual el fabricante declara su máquina conforme a los requisitos de la Directiva correspondiente y a otras Normas utilizadas para su fabricación. Constará de los siguientes elementos:

- Razón social y dirección completa del fabricante y en su caso, de su representante autorizado.
- Nombre y dirección de la persona facultada para reunir el expediente técnico, quien deberá estar establecido en la Comunidad.
- Descripción e identificación de la máquina incluyendo una denominación genérica, función, modelo, tipo, número de serie y denominación comercial.
- Un párrafo que indique expresamente que la máquina cumple todas las disposiciones aplicables de la Directiva 2006/42/CE u otras directivas comunitarias y/o disposiciones pertinentes.
- En su caso, nombre, dirección, y número de identificación del organismo notificado que llevo a cabo el Exámen CE de tipo y número del certificado de Exámen CE de tipo.
- En su caso, nombre, dirección y número de identificación del organismo notificado que aprobó el sistema de aseguramiento de calidad total.
- En su caso, referencia a las normas armonizadas que se hayan utilizado.
- En su caso, la referencia a otra normas y especificaciones técnicas que se hayan utilizado.
- Lugar y fecha de la Declaración.
- Identificación y forma de la persona apoderada para redactar esta declaración en nombre del fabricante o de su representante autorizado.

MODIFICACIÓN SUSTANCIAL DE UNA MÁQUINA:

Antes de realizar una modificación de una máquina provista de marcado CE se recomienda consultar al fabricante, a fin de que indique si esa modificación podría suponer una pérdida de la certificación. En todo caso, puede considerarse modificación sustancial:

- Toda modificación que implique que la máquina realice funciones o aplicaciones nuevas.
- El cambio de la función original de la máquina.
- Aquella modificación que dé lugar a la aparición de nuevos riesgos en la máquina.

RESPONSABILIDADES EN LA COMPRA DE MAQUINAS: INTERVINIENTES

♦ FABRICANTE / IMPORTADOR / SUMINISTRADOR (Vendedor):

COMERCIALIZAR PRODUCTOS SEGUROS:

- Directiva 89/392/CE + modif. RD 1435/1992 + RD 56/1995
- Directiva 2006/42/CE RD 1644/2008
- Ley 31/95 ART. 41 Obligaciones de los Fabricantes/Importadores/Suministradores

♦ EMPRESARIO (Comprador):

GARANTIZAR CONDICIONES DE TRABAJO SEGURAS:

- Ley 31/95 RD 1215/97

OBLIGACIONES PARTE VENDEDORA:

Si la máquina ha sido comercializada o puesta en servicio en la UE con anterioridad a 1995, adjuntar informe firmado por un técnico competente que asegure que la máquina cumple los requisitos mínimos de seguridad y salud requeridos en el anexo I del R. D. 1215/97.

Si la máquina ha sido comercializada o puesta en servicio en la UE con posterioridad a 1995 deberá cumplir con la directiva máquinas que le corresponda. En cualquier caso dispondrá de marcado CE, declaración de conformidad y manual de instrucciones (al menos en castellano).

Emitir certificado que justifique que se mantienen las condiciones originales de seguridad establecidas por el fabricante.

Si se vende una máquina procedente de un país que no es de la UE, deberá disponer de marcado CE, declaración de conformidad y manual de instrucciones (al menos en castellano) conforme a la Directiva 2006/42/CE o al RD 1644/2008 que traspone dicha Directiva. Si se comercializó por primera vez en la UE con fecha anterior a 29.12.2009 será conforme a la Directiva 89/392/CEE o RD 1435/1992.

Si se ha realizado alguna modificación sustancial en las funciones de la máquina, su propietario se convierte en fabricante y habrá de realizar un nuevo marcado CE, adaptando la máquina a los requisitos de la Directiva 2006/42/CE o del RD 1644/2008 que traspone dicha Directiva. Es por ello que se recomienda presentar un certificado que justifique que se mantienen las condiciones originales de seguridad establecidas por el fabricante.

